

Goierri tarra

300. zenbakia 2006ko maiatzak 12

BARRUAN
GEHIGARRI
BEREZIA

arra

ARGI
OPTIKA

Nafarroa etorbidea, 14 Beasain
T 943 88 31 10 www.argioptika.com

E W M E
zure ikusmena zaindus
zure estetikaren oinarritzko osagaia





ITURGINTZA - KALEFAZIOA - GASA
BAINU ETA SUKALDEKO INSTALAKUNTZAK
ETXEBIZITZEKO AIRE EGOKITUAK
BERRIKUNTZA LANAK
GREMIO GUZTIEN ARDURA



SUKALDEKO ETA
BAINUKO ALTZARIAK



BULEGOAK-LANTEGIA
USABAL, 11-A
TOLOSA
Tel.: 943 672 620

POLIURETANOZKO LEIHOAK



ERAKUSKETAK:
SAN FRANTZISKO, 10
TOLOSA
Tel.: 943 653 307



Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:


I. Fdez Ornaburu Dra.
(Medikuntza estetikoan masterra)

A. Ramirez Baigorri Dra.

Kursal
ZENTRO MEDIKUA

943 88 22 51

Garmendia Otaola, 7 - behea
BEASAIN



RPS.:32/04

BERTSOTAN

GOIERRITARRAREN 300. zenbakia



Alaitz Sarasola

Lehendabiziko hartatik hasiz
hirurehugarren alera:
Goierritarra iritsi zaigu
etxe barrura, kalera...
ibilbide hau egin izana,
noski galerak galera,
gure eskutan altxor haundi bat
dugunaren seinale da.

Momentu zailak izaten dira
eta garai bihurriak,
errota nekez mugi dezake
diru emari urriak:
bakoitzak bere tanta jarrita
hartu ditzagun neurriak
agortu gabe jarraitu dezan
gure albiste iturriak.

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierriko Hedabideak S.L.

Urbialde plaza, 7 - behea
BEASAIN

Posta elektronikoa:

goierritarra@topagunea.com

Telefonoak:

Erredakzioa: 943 88 96 12

Publizitatea: 647 319 757

Bezeroen arreta: 943 304 346

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga
9. Oñati)

Tirada: 7.000 ale

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

**Goierritarrak ez du bere
gain hartzen derrigorrez,
aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzukizunik.**

AURKIBIDEA


4. Iritzia: Aitor Aranburu.

5. Ingurugiro txokoa: AHT gelditu,
denon elkarlana.6. Errezeta: Idi carpaccio-a.
Aholkua: Larruazala berritzea.8. Erreportajea: Ordiziako azokaren
kronikariak.12. Erreportajea: Mendiko eskiekin,
gora eta behera.16. Garai batean...: Zegamako tunel
handia egin zutenekoa.19. Gazteleku: Energia berriztaga-
rrien bidetik Italiara.

20. Debaldeko iragarkiak.

22. Argazki zaharra.

**Erdiko orrietan gehigarri berezia:
Goierritarraren 300. zenbakia!**



Goierritarra diruz laguntzen duten erakundeak:

Altzaga, Arama, Gabiria, Gaintza,
Itsasondo, Ormaiztegi Zaldibia eta
Zeraingo udalak





Aitor Aranburu

3.000 milioi kilometroko

'Euskal Y' proiektuak EAEko Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailaren aurrekontua 100 aldiz biderkatzen du

Abiadura Handiko Trenak Euskal Herrian izango lituzkeen 443 kilometrotatik erdiak baino gutxiago egiteko hitzarmena sinatu dute joan den apirilaren 24an Madrilgo gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak. AHTak Goierri ere zeharkatuko luke, eta lanak aurtien hastekotan badira ere oraindik inork ez dauka informazio garbirik. Itsasondo eta Ordizian aurreikusten da lanen hasiera, eta laister hasi daitezke lursailen desjabetze prozesuak, nahiz eta baserriar eta lurjabeek euren ere ez jakin zeini zer eta noiz tokatuko zaion. Estatu espainoleko Sustapen Ministerioaren aginduz hasi dira Elorrio, Abadiño eta Atxondo inguruetakoko lur sailen desjabetze prozesuak.

Garapen iraunkorra hitzetik hortzera entzuten dugu aspalditxo, baina haren atzetik Pasaiko Superportua, Itoizko urtegia, erraustegiak, zentral termikoak, Eurohiria... beti ere atzera bueltarik gabeko txikizioak egin eta batzuen poltsikoak ederki gizentzeko. Garapenerako ezinbesteko proiektu bezala saltzen dizkigute, orain 25 urte Lemoizekin erabiltzen zituzten argumetu berdinekin. Baina gaur egun, orduan ez bezala, jendeak ez du ikusi nahi zer datorkigun: orduan ere agintariei erantzun ez balitzaie bi zentral

nuklear edukiko genituzke Deba eta Lemoizen.

Mendi mozketak, harrobiak, lur iraulketak, eskollerak, hondakindegia... milaka hektarea galduko dira lehendik ere lur gutxi daukagun lurralde honetan. Naturan eragindako kalteez gain ordea, arlo sozio-ekonomiko eta kulturean ere nabarmena izango da eragina. Garapen eredu honen muga eta ondorioak gero eta ageriago egiten ari zaizkigun garai hauek (energia arazoak, aldaketa klimatikoa, globalizazioa eta deslokalizazioa...) zaila da ulertzea eztabaida sozial gehiago eman gabe horrelako makrotxikizioak abiatzea.

AHTarekin milaka milio Euro xahutuko lirateke Euskal Herria Atlantiar pasabidearen erdigunean egiteko: hiru geltoki edukiko dituen pasabide transeuropearra. Bertako sindikatu eta eragile gehienak bat datoz proiektu honekin ez direla konponduko ez trafiko arazoak, ez eta sektore produktibo ezberdinetan dauzkagun arazoak ere.

Nekazaritzaren kasuan, berez oso latza den egoera honetan, izugarritzko inpaktua suposatuko luke. Garbi geratzen da hemengo administrazioek nekazaritzari eta herritarren elikadurari ematen dioten garrantzi eskasa. Euskal Herriko AHTaren proiektuak EAEko Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailaren aurrekontua 100 aldiz biderkatzen du. Eta antzeko ondorioetara iritsiko ginateke aurrekontua hezkuntzakoarekin edo osasungintzakoarekin konparatuko bagenu. Ze herri eredu nahi dugu? Nork erabakitzen du zer den estrategikoa? Oraindik garaiz gaude gure ezadostasuna erakusteko.

Mendi mozketak, hondakindegia, harrobiak...

milaka hektarea galduko dira lehendik ere

lur gutxi daukagun lurralde honetan.

SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGOA

IT T TT Tz LU

TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

GRAFICAS
EGUZKI
INPRIMATEGIA

NAFARROA ETOR, 17
T/F 943 88 94 82

A S E P L A N S . L .
A H O L K U L A R I T Z A - E N P R E S A K

KONTABLEA
JURIDIKOA
LABORALA
FISKALA
MERKANTILA
INMOBILIARIA
FINKEN ADMINISTRAZIOA

www.txekin.net

Tel.: 943 887 129
Oriamendi 15, behea

BEASAIN

Tel.: 943 086 420
J.M. Iturriotz, z/g

AHT gelditu, denon elkarlana

Zenbat buru hainbat aburu. Abiadura Handiko Trenaren aurka makina talde daude: Elkarlana, AHT aurkako Asanblada, Tren sozialaren sarea eta abar. Baina denen oraingo helburua AHT gelditzea da. Alternatibak behar dira gaur egun garraio arazoak konpontzeko baina ez ibilbideari loturiko alternatibak. Nolako garraio mota eta zein zentzutakoa behar dugu? Honi buruz piztu beharko litzateke eztabaida edo elkarriketa. Baita nolako garapena eta geroa nahi dugun eztabaidatzea.

Landarlan elkarteak Euskal Herrian Abiadura Handiko Trenaren aurka dagoeenez, Elkarlanak hasi berri duen kanpainarekin bat egiten du: AHT gelditzeko mila arrazoi daude: eman zeurea!!! Guztion arrazoiekin, guztion konpromezua-rekin lortuko dugu!!

Honatz hamaika arrazoi-
ren artean aurka egoteko
guk aukeratutakoak:

- Energia ikaragarri kontsumituko du. Egun bizi



dugun petroleo krisiarekin, nondik aterako da trenak behar duen energia?

- Euskal Herrian egingo den diru inbertsiorik handienak ez duelako garraio arazorik konponduko, ez merkantziarena eta ezta autoena ere. Hiriburuak lotuko ditu eta tartekoak kanpoan utzi. Bidai txartelaren prezioa ere ez da denon esku egongo.

- Ez datorrelako garapen jasagarriarekin bat baidetik eta baliabideak xahutu, kalte ekologiko eta sozial izugarriak sortu eta gutxi batzuen onura ekarri besterik ez du egingo.

Idatzi honen bidez gaia-
ri buruz jakinmina piztu
nahi dugu, gizartea infor-
mazio eske hasi dadin eta
ondorioen berri izan, baita
iritzia emateko aukera eska-
tu ere, "erabakitzeko esku-
bidea" erabiliz. (Erabakiak
hartzeko garaia da).

Blog-a

Goierriko AHT Ez taldeak
blog orria martxan du, baita
ere e-mail helbidea den
iritziak jasotzeko eta infor-
mazioa eskaintzeko. Elkar-
lanak abian jarri duen kan-
painan parte hartzeko gon-
bitea luzatzen zaizue.
[www.blogak.com/goierri-koah-
tez@gmail.com](http://www.blogak.com/goierri-koah-tez)

JAKIN BEHARREKOAK

Ibaialde programa: ibai ekosistemen babesean oinarritzen da eta, horretarako, hainbat helburu finkatzen ditu: herritarrek ibai ekosistemen ezaugarri eta arazoaren inguruan dituzten ezagutzak areagotzea, urak bizitzarako duen garrantziaz kontzientziatzea eta ibai eta ibaiertzak babesteari buruz sentsibilizatzea. Aurten ere Landarlanek parte hartuko du eta Oria ibaian, Igartza parean, laginak hartu eta parametro ezberdinak neurtuko ditu ibaiaren egoera zein den jakiteko. Maia-tzak 13. Parte hartu duten talde guztien emaitzen ondorioak www.euskadi.net/aztertu azalduko dira.

2006 zerrenda gorria:

16.119 espeziek osatzen dute arriskuan diren animalia eta landareen zerrenda hau. Aurten hipopotamo eta hartz zuria sartu dira. Lurraren berrak, legez kanpoko ehiza, kutsadura eta ekosistemen galera dira arrazoiak. Zerrendaren egileak, Kontserbaziorako Mundu Bata-sunak (IUCN), dioenez alde ona zera da, zerrenda honetan sartzen diren-
tzat, batzuetan, neurri eta ahalegin bereziak egiten direla egoera hobetzeko.

'Aiako Harria' liburua argitaratu da. Egileak: Iñigo Doria eta Gema Arrugaeta. Gipuzkoako Foru Aldundiaren 'Parke Naturalak' bildumaren barruan.

**Edozein ergelak gauzarik
bandiena, konplexuena, bortitzena
egin dezake. Argitasun ikutua
behar da –eta adore handia–
aurkako norantz aurrera
joateko.
(Albert Einstein)**

SUKALDEAN

Idi carpaccio-a



Arantxa Ibarreta
Ostatua
Gabiria

Osagaiak (2 lagunentzat)

- 150 gr. idi solomilloa
- Limoi bat
- Idiazabal gazta, 20 gr.
- Lau gari-esparrago
- Modena ozipina
- Oliba olioia
- Albaraka freskoa
- Gatza

Lehenengo, idiaren solomillo zatia, paper tranparan-tean ??? bildu, borobil for-man. Ondoren, izoztu.

Zerbitzatu behar dugu-nean, 150 gramo haragia, makinarekin, fin-fin moztu, urdaiazpikoa bezala. Hara-giari, limoi zukua, modena-ko ozipin txorrotada bat, oli-ba olio txorrotada bat eta

gatza bota. Honekin guztia-rekin, haragia beratu edo mazeratu egingo da.

Apaingarri gisa, gari-es-parragoak (trigeroak) ebaki eta gainean jarri. Albaraka edo albahaka freskoa txiki-tu eta hau ere gainetik bota, zaporea eta usaina emate-ko. Azkenik, Idiazabal gaz-ta birrindu, gainetik bota.

Larruazala berritzea

AHOLKUA

Udarako azala prestatzeko, ezinbesteko tratamendueta-riko bat azala esfoliatzea da; azala gaztetu eta garbitzeaz gain, brontzeztatu homoge-neoa lortuko dugu. Uda on-doren ere garrantzitsua da esfoliazioa, larruazalean eguzkiak sor ditzakeen kal-teak tratatzeko.

Azal dizdiratsua helburu

Aurpegia erakargarriago egiteaz gain, azal dizdira-tsua, osasun egoerarekin lotua dago. Azken hilabete-etan merkaturatutako pro-duktoek eta tratamenduek, larruazalaren dizdira hobe-tzea dute helburua.

Azalararen dizdiraren

etsaiak ondorengoak dira: estresa, zirkulazio txarra, adina, faktore klimatikoak, eta kutsadura.

Azal dizdiratsua lortzeko aholkuak

- ✓ Barazkiak eta frutak jan.
- ✓ Elikagai garbigarriak eta fibretan aberatsak direnak gehitu: apioa, tipulak, esparragoak, endibiak, pina.
- ✓ Antioxidagarrietan aberatsak diren elikagaiak jan: tomatea, mahatsa, azenarioak.
- ✓ Arrain gehiago jan.
- ✓ Kafearen kontsumoa gutxitu eta alkohola baztertu.
- ✓ Odolaren zirkulazioa hobetuko duten infusioak edo belar-urak hartu: ginko bi-

loba, erratz belarra, mahatsondo gorria, eta abar.

Azal dizdiratsurako zainketa

- ✓ Aurpegiko makilajea egunero kendu, produktu egokiek.
- ✓ Astean behin edo bitan esfoliatu.
- ✓ Egunero krema hidrata-tzailea eman, hobe egunez, eta gauez nutritu.
- ✓ Aktibo lasaigarriak eta freskagarriak dituen maska-rila erlaxatzaileak erabili.
- ✓ Tarteka, lifting eragina duten anpoilak erabili.
- ✓ Kalitate oneko makilaje produktuak erabili.
- ✓ Masajea, drenatze linfati-



Josune Eskisabel
Josune Estetika Zentroa

koak eta abar, oso eragin-korrak dira.

- ✓ Peeling-ak eta mikroder-mourradurak dizdira gutxi-tzen dute.

IÑAKI ARIN

Aseguruak



☎ 943 888 702
Oriako Pasealekua, 20
B E A S A I N



Logela, egongela eta sukaldeko altzari nahiz osagarrietan aukera paregabea

Altzariak neurrira
Mota guztietako aroztegi lanak
PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

☎ 943 16 40 40 - 639 631 640 faxa: 943 16 47 47
Antzizar-Katea, 5 BEASAIN



GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

Arrasate

Goierrri

lehen zikloa

- Mekanika Industri Ingeniaritza Teknikoa
- Industri Diseinuan Ingeniaritza Teknikoa
- Industri Elektronika Ingeniaritza Teknikoa
- Sistemen Informatika Ingeniaritza Teknikoa
- Kudeaketa Informatika Ingeniaritza Teknikoa
- Telekomunikazio Sistemetan Ingeniaritza Teknikoa
- Telematika Ingeniaritza Teknikoa

ikasmaila

- 1., 2. eta 3.
- 1., 2. eta 3.
- 1., 2. eta 3.
- 1., 2. eta 3.
- 1., 2. eta 3.
- 1., 2. eta 3.
- 1., 2. eta 3.

ikasmaila

- 1., 2. eta 3.
- 1.
- 1.
- 1.
- 1.
- 1.
- 1.

ate irekiak:

ARRASATE:
MAIATZAK 25, 2. ZIKLOA
EKAINAK 10, BITERI IKASTETXE NAGUSIA

bigarren zikloa

- Industri Ingeniaritza
- Industri Antolakuntza Ingeniaritza
- Automatika eta Industri Elektronika Ingeniaritza
- Informatika Ingeniaritza
- Telekomunikazioetan Ingeniaritza

- 4. eta 5.
- 1. eta 2.
- 1. eta 2.
- 4. eta 5.
- 4. eta 5.

-
-
-
-
-

ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA

Oñati

Bidasoa

lehen zikloa

- Zuzendari Idazkaritza
- Enpresa Zientzietan Diplomatura. Ibilbideak:
 - Nazioarteko Merkataritza
 - Enpresa Logistika eta Garraioa

ikasmaila

- 1., 2. eta 3.

ikasmaila

- 1., 2. eta 3.

ate irekiak:

OÑATI:
MAIATZAK 25
BIDASOA:
MAIATZAK 18
MAIATZAK 24, 2. ZIKLOA

ziklo luzea

- Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza Lizentziaura. Ibilbideak:
 - Finantza Zuzendaritza
 - Merkataritza Zuzendaritza
 - Erakundearen Kudeaketa

- 1., 2., 3., 4. eta 5.

bigarren zikloa

- Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza Lizentziaura. Ibilbideak:
 - Finantza Zuzendaritza
 - Merkataritza Zuzendaritza
 - Erakundearen Kudeaketa
- Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza Lizentziaura. Ibilbideak:
 - Enpresa Proiektuen Garapena

- 3., 4. eta 5.

- 1. eta 2.

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

Eskoriatza

lehen zikloa

- Irakaslea. Haur Hezkuntza Espezialitatea
- Irakaslea. Hezkuntza Berezia Espezialitatea
- Irakaslea. Atzerriko Hizkuntza Espezialitatea
- Irakaslea. Heziketa Fisikoa Espezialitatea
- Irakaslea. Entzumena eta Mintzaira Espezialitatea (2. diplomatura soilik)
- Irakaslea. Lehen Hezkuntza Espezialitatea (2. diplomatura soilik)

ate irekiak:
MAIATZAK 18

ziklo luzea

- Ikus-Entzunezko Komunikazioaren Lizentziatura

bigarren zikloa

- Psikopedagogia Lizentziatura. Ibilbideak:
 - Hizkuntzen Psikopedagogia. *On line eta aldika bertaratzekoa*
 - Esku-Hartze Psikopedagogia. *On line eta aldika bertaratzekoa*
- Giza Zientziak Enpresari Aplikatuta. Ibilbideak:
 - Giza Zientziak Enpresari Aplikatuta
 - Giza Zientziak Informazio eta Komunikazioari Aplikatuta

inskripzio epea
zabalik

Ordiziako azokaren kronikariak



Ana Irastortzak eta Lierni Elortzak ia 20 urte daramazkite, azokako produktuen prezioak bildu eta komunikabideetan zabaltzen

Ana Irastortza ordiziarra, 1987. urtean hasi zen, Deia egunkari-ko Ordiziako kronikarako Ordiziako azokako prezioak biltzen. Aurretik hasia zen Rafa Arizmendi El Diario Vascorako. Segura Irratiko Lierni Elor-

tza 1988an hasi zen. Hainbeste urteren ondoren Ordiziako azokaren bilakaera ondo ezagutzen dute, baita produktuen bilakaera ere. Beraien lanaren eta azokaren errepasoa egin dugu ondorengo lerrootan.



- × Jabekideen komunitatea osatzea
- × Komunitateen kontabilitatea
- × Akten idazketa
- × Aurrekontuen eskaera
- × Aholkularitza legala
- × 24 orduko asistentzia
- × e.a.

Komunitateen administrazioa
Kol. Zenb. 599

Urdaneta 52-behea
ORDIZIA
Tel.: 943 087 486

Euskal Herriko komunikabide ezberdin ugaritan zabal-tzen dira Ana Irastortza, Lierni Elortza, Rafa Arizmendi eta Miren Iturriozek egiten duten lana. Ordiziako azokako saltzaileekin egon, asteko edo denboraldiko gorabeheraz hitz egin, eta produktu ezberdinen prezioak biltzen dituzte asteazkeneko kazetariak. Urte asko eta zenbaki asko dira. Baita bizimodu aldaketa bat ere.

Asteazkeneko erronda eginda gero elkartu gara Ana Irastortza eta Lierni Elortzarekin. Segurarrak, oraindik gordeta dauzkan 1988ko abenduko prezioen zerrendak ekarri ditu. “Produktuen arabera, asko aldatu dira prezioak. Adibidez, arrainetan eta kanpoko fruitetan igo dira gehien prezioak”. Paperak begiratu ondoren, datu hau eman du Liernik: 1988ko abenduan angulak 15.000 pezetan saldu ziren. Garai berean, antxoa, 600-760 pezeta tartean zegoen; gaur egun, 10,50-10,90 euro tartean dabil-tza. “Horrekin batera, 1988an garrantzitsuak ziren arku-meak, konejuak, antxumeak gaur egun oso gutxi ikusten dira”.

Bertako produktuetan ere igoera nabaritu da Ana Irastortzak adierazi duenez, “hemengo baserrietako produktuen igoera euroarekin nabaritu zen”. Liernik gaineratu duenaren arabera, “bo-

robildu egin ziren prezioak. Adibidez, lehen 100 pezetan saltzen zena, euro bate-ra pasatu zen. Lehen behar-bada, bost duro garestitzen zen produktu bat baina orain, euro batetik euro eta erdira eta bi eurora berehala pasatzen da. Alde handia dago”.

Prezioetan, erreferentzia izan da Ordiziako azoka. Mantendu egiten da hori oraindik. Ana Irastortzaren esanetan, “jendeak deitu izan dit prezioak galdetzeko. Adibidez, baserritar batek momentu batean, produktuen bat saltzeko duenean, jakin nahi izaten du Ordizian zenbatean dabilen. Indaben kasua adibidez. Baina askotan zaila izaten da indaben erreferentzia bat ematea, 9 eta 12 euro artean ibiltzen baita. Orain tarte oso zabalak daude”.

Harreman estua

La 20 urtean, asteazkeneko elkarrekin egonda, harreman estua lortu dute bai kazetarien artean, bai saltzaile-en artean. “Gure artean bai, baina ez dugu lortu afari bat egitea”, esan du Anak. “Beti presaka ibiltzen gara eta gosariarekin konformatzen gara”, gaineratu du Liernik. Denbora asko ez dela, gosari goxoa egin zuten gainera: Aierbe ziza biltzaileak bildu eta Mikel Lasak oparitutako zizekin egindako tortila.

Saltzaileekin ere harreman polita lortu dute. “De-



Lierni Elortza.

nen izenak ikastea kostatu zaigu. Baina bakoitzak zer daukan ondo dakigu. Lehenengo ilarrak nork ekartzen dituen, nork daukan merke-ago edo garestixeago...”, adierazi du ordiziarrek. “Beraiek konturatzen dira zenbateraino jabetzen zaren gaiaz. Norberak ere zenbat eta gehiago jarraitu, orduan eta tranpa gutxiago sartzen dizkizue”.

Azokako baserritarrek kazetariei beraiei ere galde-

tzen die produktu zehatz bat zenbatean dagoen: “produktu bat zenbatean dagoen galdetzen dute, zerbait puntuala denean. Produktu bat asko eduki eta zenbatean saltzen den ez dakitenean azokan buelta bat eman eta esatera joaten gara”.

Liernik azpimarratu nahi izan duenez, “beraien artean ere badago batasun puntu bat. Elkarrekin antzera ibili nahi dute prezioetan.



Ana Irastortza: “perretxikuen boom-a dago azokan”.

Hori bai, batzuk igotzeko joera daukatenak egoten dira eta besteak, jaistekoa”.

Anak ondokoa gaineratu nahi izan du: “batzuk garestiago ematen dute, bezero finko bat daukalako eta saldu egiten dutelako”. “Beste batzuk itxura ere gehixeago zaintzen dute. Horrek ere garestixeago saldu ahal izateko ematen die bidea”, dio segurarrak.

Produktu aldetik aldaketa

Prezioez gain, produktu motak aldatu ote diren galdetu diegu Ordiziako azokako kronikariei: “produktu berriak baino gehiago, aldaketa izan da, hemengo tomatea, ia gabonak arte aurki dezakezula. Zenbait saltzailek denbora gehiagoan dauzkate zenbait produktu”, dio Anak.

Gai horren harira, kezka bat adierazi du Liernik: “kontsumitzaileei dagokionez, jendeak orokorrean, ez daki garaian garaiko produktua zein den. Urte gutxian kontzientzia hori galdu egin da”.

Kanpoko produktuak ekartzea ez da gauza berria



Ana Irastortza.

Ordiziako azokan. Segurarraren arabera, “1988an ere ekartzen ziren Txiletik fruitak. Txileko briñoia, 880 pezetan zegoen kiloak”. Anak gaineratu duenez, “azken urteotan Marokotik fruitu asko iristen da. Oso leku ona omen da fruitu landaketarako”.

Perretxikuen gorakada

Gorabehera bat baino gehiago ezagutu dute azken 20 urteotan Ordiziako azo-

kan. Ganadu azokarik adibidez, ez zuten ezagutu. Arkume salmenta handia bai. Oilo kalea hegatziz beteta ere bai. Ordiziarrak gogoratu duenez, “hori galdu egin da, iazko urte bukaeratik. Hegazti gripea dela eta, debekatuta dago hegazti salmenta. Ehiza bera ere, aurtent gutxiago saldu omen da”. Liernik honela jarraitu du: “Oilo kaleak galdu du bere izatea. Aurtent hutsik dago kale hori”.

Produktu batzuk galdu eta beste batzuk ugaltu. Horixe da perretxikuen kasua. “Nik uste perretxikue-tan boom bat eman dela. Arkumeak behera egin duen bezala, perretxikuek gora egin dute. Lehen, 100 kilo izaten zen topea. Gaur egun, 300-400 kilo egoten dira. Saltzaile gehiago dago. Horrelako negozioetan, gizonetakoak izaten dira. Emakumea, plaza barruan dago eta gizona gehiago dago, negozioa dagoen lekuan”, dio ordiziarrak.

“Kanpoko ere asko saltzen da baina hemen ere onddo biltzailea asko ugartu da. Etxerako baino gehiago biltzen dute eta azokara ere iritsi egiten da”, gaineratu du segurarrak. Udaberriko zizak ere, “orain Aierbek abenduaz geroztik, noiznahi ekartzen ditu”, diote. Kopuruaz gain, klase gehiago ere salgai izaten direla adierazi dute.

Perretxikuen prezioen bilakaera, Liernik laburbildu digu, paperei erreposoa eginda: 1988an, onddoa, 2.500 pezetan saltzen zen kiloak. Gaur egun 20 euro omen da normala. Zizei dagokienean, denboraldiko lehenengoak 140 euroan saldu dira. “Guk ezagutu dugun preziorik garestiena izan da. Baina Lasa aitak esan digu, orain dela 25 urte, 25.000 pezetan ere saldu zirela. Gu orduan ez geunden hemen”, diote.

**KONTSULTORIO
MEDIKU-KIRURGIKOA**

**Goierritarrentzako
mediku zerbitzu espezializatuak**

**Ordua eskatzeko tfnoa: 943 08 55 60
Faxa: 943 08 55 61
Nafarroa Etorbidea, 25 - 2.
BEASAIN**

Aseguru korreduria

SEGURUEN PROFESIONALAK

MUNDUATE

Elosegi, 1- behea
Tfnoa.: 943 88 86 20
Tfno. mugikorra: 609 49 14 41
Faxa: 943 88 91 18
LAZKAO

Ohitura aldaketa

20 urte ez dira alperrik igaro eta bizimodua asko aldatu da. Azoka bera ere bai.

Lierni Elortzak azpimarratu duenez, azoka bi zentzutan aldatu da: "batetik, goizeko 8,30etan arkumeak ikustea oso normala izan da. Konejuren batzuk ere ikusita nago. Orain goizeko 6,30etan arrastorik ere ez dago. Aspaldi ez dugu arkumerik ikusi. Alde batetik, gutxiago etortzen dira eta bestetik Garsabirekin etxeko bilketa".

Beste alde batetik, azokan erosketak egiteko ordua aldatzen ari dela zehaztu du. "Lehen jendea nahikoa goiz hasten zen, baina orain esaten da, peria, 11etatik 12,30etara egiten dela".

Erosleen perfila ere aldatzen joan da. "Erosle gehienak, adinekoak dira, eta saltzaileak ere bai. Gazteenetariakoak 45 urte ditu", zehaztu du Anak. Saltzaileen eta erosleen errelebo naturalik ez dute ikusten.

Kalitatearen plaza

Hala ere, bertako produktuak, kalitatezkoak eta freskoak erosteko lekuri egokienaren, Ordiziako azokaren, aldeko aldarria egin nahi dute bi kazetariek.



"Arkumeak behera egin duen bezala, perretxikuek gora egin dute. Lehen, 100 kilo izaten zen topea. Gaur egun, 300-400 kilo egoten dira".

"Batez ere jende gaztea bultzatu behar da azokara. Baserritik zuzenean datozen produktuek ziurtasunik handiena daukate, gehienez ere bezperan bildutakoak direla. Azokek hortik badaukate etorkizuna. Ber-

tako eta kalitatezko produktuak nahi dituenak, azokan aurkituko ditu".

Ana Irastortzak gogoratu duenez, ostiral arratsaldetako azoka ere sortu zuten. "Erosle gutxi baina ona omen da", diote.

Ez dakizue zer daukazuen!

Horixe esan zioten behin Ana Irastortzari, Bartzelonako Unibertsitateko hainbat irakaslek. "Bartzelonako Unibertsitatetik Ausa-Gaztelu ikertzera arkeologo batzuk etortzen ziren. Ertaroa aztertzen. Asteazken batean Ordiziara etorri ziren, azokara, eta txundituta gelditu ziren. Ez dakizue ondo zenbaiterainoko zortea daukazuen, esan zidaten. Askok gozatu zuten".

Lehen jendea nahikoa goiz hasten zen erosketak egiten, baina orain esaten da, peria, 11etatik 12,30era egiten dela.

RUGAZTIBI
AHOLKULARITZA

txekin
www.txekin.net

zugaztibi@telefonica.net
Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58
Faxa: 943 16 15 58
Domingo Unanue plaza, 2 behe
ORDIZIA

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble
- agenteia

9:30etik 19:00etara
EGUERDIZ IREKITA

SOLOZABAL

AUTO-ESKOLA

Mota guztietako
gida-baimenak

Aita Urdaneta
ORDIZIA
943 88 72 76

MUJKA
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94
Kale Nagusia, 19 ORDIZIA



*Ainhize
Gorospe eta
Fernando
Monasterio*

Mendiko eskiekin, gora eta behera

Altzagan bizi dira Ainhize Gorospe ordiziarra eta Fernando Monasterio iruindarra. Oñatin lan egiten dute. Asteburuetan, Pirinioak, mendia, elurra eta eskiak izaten dituzte lagun. Mendizaletasuna eta eskizale-tasuna uztartu eta mendiko eskia egi-

ten dute. Ainhizek Euskadiko Kopa irabazi berria du. Fernando, Euskadiko selekzioko kidea da eta mendiko eskian, Europako probarik garrantzitsuenetan parte hartu du. Besteak beste, Pierra Mentan eta Glaziareetako Patrullan.



LOGOS
MOBILIARIO INTEGRAL

Goierriin egindako
sukaldeak

Eskiei esker, neguan ere goi mendietan ibiltzeko aukera izaten dute Ainhize Gorospek eta Fernando Monasteriok.

Pixkanaka mendiko eskian hasi, lasterketak ikus-tera joan, parte hartzen hasi, eta gero eta helburu zailagoak betetzen ari dira Gorospe eta Monasterio. Urtetik urtera gainera, emaitzak nabarmen hobetzen ari dira.

Ainhizek esaterako, aurren, Euskadiko Kopa irabazi du, emakumezkoetan. Lau proba izaten dira (Baqueiran, Astunen, Regilen eta Luz Ardidenen) eta hiru onenak izaten dira puntuagarriak. "Izaskun Zubizarreta Espainiako txapelketetan lehiatzen aritu da, Espainiako selekzioarekin aritzen baita, eta proba batera ez zen etorri. Orduan, nik irabazi nuen", argitu du. Euskadiko txapelketa ere jokatzen da, hori proba bakar batera jokatzen da eta txapel hori, Izaskun Zubizarretarentzat izan da. Ainhize, hirugarren gelditu zen.

Fernando Monasteriok ez du garaipenik lortu, baina Euskadiko selekzioako taldean sartzea lortu du. 8 gizonezko, emakumezko batek eta gazte batek osatzen dute selekzioa. Selekzioan egoteak badiu abantailak: federazioak, inskripzioak, joan-etorriak, ikastaroak ordaintzen dizkiete. Materiala erosteko ere beharpenak izaten dituzte.

Entrenatzeko zailtasunak

Mendia eta eskia, biak menperatu beharrekoak dira mendiko eskian. Entrenatzeko, elurretan entrenatzea bezalakorik ez dago,

Mendiko eskiaren ezaugarriak

Iraupen eskiaren eta eski alpinoaren arteko konbinazioa da mendiko eskia. Gorakoan, iraupen eskian bezala, orpoa solte eramaten da. Beherakoan, alpinoan bezala, fijazioan ondo lotuta eta estututa.

Eskiak

Hori bai, eskiak, arinagoak dira mendiko eskian, gorakoan, askotan, bizkarrean eramane behar baitira. Eskien zabalera neurri ezberdinetakoa izan daiteke eta karreraren edo elurraren egoeraren arabera, erabakitzen dute zein eskirekin lehiatu. "Elurra gogorragoa baldin badago, eski estuagoak eramaten dituzte. Sakontasunezko elurra baldin badago, eski estuekin elurretan sartu giten da eta zabalagoak behar izaten dira", adierazi du Fernandok.

Fijazioak

Bi posizio dituzte fijazioek: bata, ibiltzekoa. "Gorakoan, askatu egiten dira, hanka altxatuta eramateko". Bestea, jaistekoa; "Jaisterakoan, fijazioa aldatu eta bota finko geldituko da", azaldu du Ainhizek.

Botak

Igotzerakoan askatu egiten dira, hankari jokoa egiten uzteko; eta jaisterakoan, estutu, lotu egiten dira. Botak ere, aldian aldian arinagoak egiten dituzte.

'Foka larrua'

Eskien azpian, foken larrua deitzen zaion oihala puska ere jartzen da, igotzerakoan ez labain egiteko. Jaisterakoan, 'fokak' kendu egin behar dira. "Foka larruak" kola bat dauka, eskietan eransteko. Kontrapeloa da eta igoeretan aurreratu egiten duzu, atzera egin gabe", diote.

Lasterketak

Beraz, ibilbideko ezaugarrien arabera, aldaketa asko egin behar izaten ditu eskia-tzaileak. "Guk aldaketa hauek guztiak egiteko 5 minutu behar ditugu eta profesionalek, minutu batean egiten dute. Karrera bakoitzean, pare bat aldiz egin behar izaten dira aldaketa guzti hauek", ar-



Ainhize Gorospe eskiak bizkarrean bartuta mendian gora.

gitu dute. Txapelketetan, ibilbidea markatuta egoten da, banderatzko gorritz eta berdez.

Lasterketetan material bat derrigorrean eramane beharra daukate: kaskoa, palak, kranpoiak...

Lasterketa gehienak egun batean egitekoak izaten dira, 2-3 ordukoak, 20-21 kilometrokoak. 1.800 metroko desnibela izaten dute. Dena den, binakako eta hirunako lasterketak ere izaten dira, normalean, egun bat baino gehiagokoak.

Dena den, lasterketa gehienetan, bi ibilbide izaten dira. "A eta B ibilbideak egoten dira. A ibilbidea, lehiatzera joaten direnentzat izaten da eta bestea, herrikoia izaten da. Oso giro ona egoten da, Euskadiko txapelketan adibidez. Oso karrera politak daude, oso herrikoiak", azpimarratu dute.

Autowag



☎ 943 888 254

☎ 943 888 266

Faxa: 943 888 105

N-1 errepidea, 419 Km

BEASAIN

baina gure inguruan, zaila da hori aurkitzea. Asteburuetan hori bai, elurraren bila joaten da bikotea Pirinioak aldera. “Aragoiarrek eta kataluniarrek abantaila handia ateratzen digute, entrenatzeko, bertan daukate-lako bai mendia eta bai elurra. Andorran bizi den batek, lanetik atera eta bertan dauka entrenatzeko inguru naturala. Guk eskiak asteburuetan bakarrik hartzen ditugu. Fisikoan ez daukagu diferentzia handirik baina teknikan alde handia dago. Batez ere jaitsieratan ateratzen digute alderik handiena. Jaitea erraza dela uste da baina ondo jakinez gero bai. Horretan, mendian eta elurretan bertan entrenatzen dutenek aldeak daukate”, adierazi du bikoteak.

Hori bai, iazko urtean zorte gehiago izan zuten, elur asko egin baitzuen gure inguruan bertan. “Lanetik atera eta Aloñara igotzen ginen”, diote. Oñatin lan egiten dute biek.

Beraz, astean zehar, txirrinduan eta korrika aritzen dira. Mendira ere joaten dira, Txindoki eta Aralar alde- ra, desnibelak lantzeko. “Baina ez da berdina. Gorka bakarrik ez da egin behar, behera ere bai. Teknika ondo jakin behar da. Gorka joan ala beheraka joan, zenbait aldaketak egin behar izaten dira: gorakoan, fokaren azala deitzen zaiona jarri, eskiek irristatu ez dezaten; fijazioetan hanka lotu eta askatu; botak lotu eta askatu... guk denbora asko galtzen dugu horretan eta horretan aritzen denak, aldaketa horiek guztiak beharrela egiten dituzte”.

Kirol gogorra dela azpimarratu du behin eta berriz Altzagako bikoteak. “Disziplinari exijentea da. Ez da goraka bakarrik joatea. Korredoreak, aristak... daude. Jaitsi egin behar dira. Aldaketa asko egin behar dira, gora eta behera asko izaten

Bikote kirolaria

Batez ere mendian ibiltzea dute gustuko Ainhize Gorospek eta Fernando Monasteriok. Azkenaldian, neguan ere mendira joatea ahalbidetzen duelako, mendiko eskia ere ari dira egiten.

Militarren kirol bezala definitu du Altzagako bikoteak mendiko eskia. Beraz, kirol honetan nolatan murgildu diren galdetu diegu. “Nik 20 urte daramazkit mendiko eskia egiten. Lehiaketetan 3 urte daramazkit. Lasterketa bat ikustera joan, hurrengoan parte hartu, bestean ere bai... Pierra Mentan parte hartzeko dezente lehenago eman behar da izena eta bertan parte hartzeko han eta hemen parte hartzen duzu... Gustatu eta hemen gabiltza”, dio iruindarrak.

Ordiziarra, Fernandoren eraginez hasi zen. “Ni Fernandori laguntzen hasi nintzen. Iaz Euskadiko txapelketan parte hartu nuen eta hemen nabil”. Eskien laguntzaz, neguan, errazago iristen da mendira eta jaitsi ere azkarrago eta hobeto. “Neguan igo ditugu hainbat mendi, udan igotzea oso arriskutsua direnak. Aste Santuan adibidez, Alpeetan izan gara eta Tourrean txirrindulariek igotzen duten mendate bat, eskiz igo dugu.”, dio Ainhizek.

Mendizaletasunari dagokionez, 6.000 eta 7.000 metroko mendiak igo dituzte. Indian, Bolivian, Nepalen... Aurtun, udako oporretan, Argentinara joango dira eskiak hartuta, hemen udan denean, han negua izaten baita. Eski denboraldia amaitu da eta orain txirrinduan ibiltzen hastekoak dira. Quebrantahuesos egingo dute biek.



baitira. Oso aldapa handia baldin badago, eskiak bizkarrean hartu eta kranpoiak jarri behar dira. Aristak sokarekin... Mendiaren eta eskiaren konbinazioa da eta ez da kontua eskiatzen bakarrik jakitea. Mendiko teknika ere menperatu behar da”.

Militarrak nagusi

Kirol ezezaguna da gure artean mendiko eskia. Monasteriok adierazi duenez, “8-10 urte daramatza hemen kirol honek. Ez du jende gehiegik egiten. Euskadin,

gaur egun, 20 bat lagun ari-tuko gara gutxi gorabehera”.

Europa mailan, bikote gehienak profesionalak dira. “Asko militarrek izaten dira. Espainian adibidez, militarrek, guardia zibilak, liberatuta egoten dira. Zortzi hilabete pasatzen dituzte lasterketak prestatzen eta alde handia dago. Pierra Menta irabazten dutenak, adibidez, militarrek iza ten dira”.

Dena den, euskaldunak ere ari dira maila hobetzen. “Espainiako txapelketara, 4

bikote joaten gara Euskal Herritik. Bikote guztiak, lehenengo sei postuetan gelditu gara. Katalunian eta Aragoin dagoen maila ikusita, aurtun, euskaldunok gogorlan egin dugu. Oso maila ona hartu dugu. Fijatu egiten zara eta asko ikasten da karreretan”.

Kirol gogorra

Gora eta behera ugaritan ibiltzen dira Fernando eta Ainhize. Hobeto non moldatzen diren galdetuta, ordiziarrek, beheraka oso geldi jaisten dela adierazi digu. Iruindarrak, aldiz, denborarekin denera jartzen dela dio.

Hori bai, urteek ematen duten esperientzia oso garrantzitsua da Fernandorentzat. “30 urtetik gorakoen-tzako kirola dela uste dut, esperientzia eta fisikoa uz-tartu behar baitira. Espe-

Europa mailan, bikote gehienak profesionalak izaten dira.
Asko, militarrek.

rientziak izugarrizko garrantzia dauka”.

Arriskuez galdetuta, “edozein lekutan bezala”, erantzun digute. “Eski estazioetatik kanpo entrenatzen dugu. Eguraldia, elur arriskua... kontutan hartu behar da. Txapelketetan adibidez, arrisku handia dagoenean, lasterketetako ibilbidea aldatu egiten dute”, adierazi digute.

Fernandori, eski alpinoa arriskutsuagoa iruditzen zaio. “Beldur gehiago ematen dit eski pistan eskia-tzea, hainbeste jenderekin. Izua ematen dit”. Beste beldur bat ere izaten du iruindarrak: “nik beldur handiagoa diott mendiraino ko-txez egin behar dudun ibilbideari, mendi ibilaldiari baino. Arriskua beti dago, baina zuhurtasunarekin ez dago ezer gertatu beharrik”.

Ametsa eta helburua

Ordu asko sartu dituzte aurtengo denboraldian, bai entrenatzen, bai lasterketetan. Fernandok 90.000 metroko desnibela egingo zuen. “Hau da, Txindoki 90 aldiz igo eta jaitsi bezala”. Pierra Mentako proba ospetsua bi aldiz egin du. Suitzako Glaziaretako Patruila ere bai. Italian jokatzeko den Mesalama egitea falta zaio, mendiko eskian Europan jokatzeko diren probarik garrantzitsuenak burutzeko. “Mesalama eta Patruila txandakatuz, bi urtean behin egiten dira. Helburua, hiruak egitea da. Txirrindularia izango banintz, Tourra, Giroa eta Vuelta egitea bezala. Hiruetan parte hartzea da helburua eta ametsa”, dio Fernandok.



Pierra Menta

Pierra Menta lasterketa da mendiko eskian gorenena. Binaka jokatzeko da, hiru egunetan. Guztira 10 bat ordutan. “Probarik garrantzitsuenak da. Munduko Txapelketa izango balitz bezala. Ez da txapelketetako parametroetan sartzen, desnibetan pasatu egiten delako. Lehiaketa normalak, behetik eta goitik, desnibel zehatz batzuetan sartuta egon behar dira. 2.000 metroko desnibela baino gutxiago eta 1.600 baino gehiago izan behar du. Pierra Menta lau egun segidako lasterketa da, eta guztira desnibela askoz ere handiagoa da. Aparteko proba bat da Pierra Menta. Mendiko eskiaren barruan, handiena. Pierra Menta irabazten duena ez da Munduko txapelduna, ofizialki, baina Pierra Menta irabazten duen bikotea, bikoterik onena izaten da. Gehienek, Munduko txapelketako proba baino hobeto prestatzen dute Pierra Mentako proba”. Txirrindularitzarekin konparazioa egitekotan, Tourra litzatekeela diote.

Fernando Monasteriok azken bi urteetan egin du. 180 bikotek parte hartzen dute eta 2005. urtean 113. egin zuten eta aurreko, 80.. “Askok hobetu dugu. Lasterketa gehiagotan parte hartu dugu eta gehiago ikasi dugu. Irteerak garrantzia handia dauka eta hori ere ikasi egiten da ondo kokatzeko”.

Glaziarretako Patruila

Suitzan jokatzeko den proba hau apirilaren bukaeran jokatu zen. Historia handiko proba da hau ere, Fernandok azpimarratu digunez. “Suitzako armadako soldaduek egiten zutena da. Glaziarrek zaintzeko egiten zuten patruilatik dator proba. Urte asko daratatza proba honek eta herrikoia da. 5.000 lagunek parte hartzen dute. Hiru egunetan ateratzen dira, parte hartzaile bakoitzaren mailaren arabera. 6 ordu eta 45 minutuan egiten dutenetik hasi eta 20 ordu behar dituztenek parte hartzen dute. Gutxi gorabehera, Behobia-Donostia lasterketa bezala. Hori bai, gutxienezko denborak eskatzen dituzte bertan parte hartu ahal izateko”.



kutxa



Tunel handia egin zutenekoa

Xabier Azurmendik kontatua

Euskal Autonomia Erkidegoko trenbide tunelik handiena, Oazurtzako tunela, Zegaman dago. 2.957 metro ditu. Tunel Handia bezala ezagutzen da. 1860. urtean hasi ziren tunela egiten. Hiru kontratistei eman zitzaien ia 3 kilometroko lanak egiteko ardura, baina erdiko zatia egiteko ardura zuenak bakarrik bete zuen bere lana, goitik behera zeuden zu-

loak aprobetxatuz. Beraz, irteerarik gabeko kilometro bateko tunela egon zen mendi barruan, 1863an, lanak bukatzeko Nortek Gouin et Cie enpresa kontratu zuen arte. 1864ko ekainean amaitu zituzten lanak. Berezitasun bezala aipatu, tunelaren barruan eta Aizkorriren bihotzean, nitxo bat dagoela, bertako langileentzat, sukaldearekin eta egongelarekin.



Osinalde s.l.

DESGUAZEA

Tel.: 943 16 22 07 car.osinalde@terra.es
943 88 70 48 Igara industrialdea, z/g
Faxa: 943 88 28 01 ORMAIZTEGI

Kol. zkia.: 764



Nerea Larrea Oyarbide

Aho kirurgia
Implantologia
Periodontzia
Artikulazio eta ahoko minak

Dulce Maria Loinaz, 3 Beasain 943 088 118

Geroago, erdiko zuloaren bila, Zegama aldetik eta Brinkola ingurutik hasi ziren gure tunela zabaltzen.

1864ko abuztuaren 15ean Madrildik Iruneko bi-dea lehenengo aldiz korritu zuen trenak. Inaugurazioko jaiak Donostian ospatu ziren egun berean.

Francisco de Asis, Isabel II.aren senarra bertan zen. Geltokia eta ibilgailu denak bedeinkatu eta gero, 'Te Deum'-a abestu zuten Santa Mariako elizan. Don Bizente Manterolak, Gasteizko majistralak eta urte gutxi barri Carlos VII.aren kontseilari izango zenak, hitzaldi zoragarri batez ongi etorria egin zion trenari. Manterola hau Donostiako semea zen, Gasteizko Kalonje majistrala, 'Semanario Católico Vasco-Navarro' astekariaren sortzailea, Madrilgo gorteetan diputatu zelarik, Castelarren pareko hizlari trebea izana zen. Karlsten pentsalaririk onena izango zen, behar bada.

Francisco de Asisek bi-daia Parisera jarraitu eta Napoleon III.a eta Eujenia Montijorekin elkarriketak ukan zituen.

Errei bakarria

Trenbideari errei bakarria ipini zitzaion. 1872-1876ko karlisten gudatean erasoak jasan zituen. Trenbidearen bigarren erreia 1902an ipini zuten Donostia eta Pasaia-aren artean. Beasaindik Al-



Tunel
Handirako
kamioa,
1940tik 1945era,
gudatea galdu
zuten gudari
atxilotuek egin
behar izan zuten.

tsasura 1909an, eta Gipuzkoa osoan, berriz, 1911n osatu zuten bigarren erraiz trenbidea.

Trenak elektrizitatez erabiltzeko lanak 1929an hasi ziren eta 1932an pasa zen gure trenbidean kerik gabeko lehen ibilgailua.

Zegamako herrian apeaderoa 1945ean egin zuten; bertako aterpea Zegamako

Udalaren diruz ordaindu zuten. Tranbia denak gelditzen ziren bertan.

Tunel Handirako kamioa, 1940tik 1945era, gudatea galdu zuten gudari atxilotuek egin behar izan zuten. Abereei baino tratu gogor eta astunagoa eman zitzaion gizarajoei. Zegamako etxekoandre bihotz zabalek ematen zizkieten ogi

zati eta babarrunei esker bizirik irten ziren. Haurtzarotan ni gauza hauek denak ikusia naiz eta gaur lotsa eta errukia sentitzen ditut oraindik gauza hauek denak oroitzean.

*Iturria: 'San Adrian eta inguruen kondaria'.
Xabier Azurmendi.
(VI. Gerriko Ikerlan
Sariketa. 1996)*



Mendizabal, C.B.

ITURGINTZA - BEROGINTZA

Tel.: 609 614 552 (Iñaki)

659 644 221 (Xabi)

Txindoki, 23 - 4. ezk. ZALDIBIA




RENAULT

LAZKAO GARAJEA

Tel.: 943 882 442 / 943 888 901 Faxe: 943 888 901

Senpere Industrialdea LAZKAO



KAMIXETA ESTANPAZIOA

FOTOKOPIAK KOLORETAN

☎ 943 02 73 58

Faxe: 943 02 79 39

San Inazio, 5 BEASAIN

Herriari entzunak

Zegamako Tunel Handiko errekaetoaren ingurutik, gurdibideari jarraituz, kilometro batera gutxi gora-behera, trenbidea egien ari zirela hil ziren langileen hilotzia aurkitzen da. Hesi batek inguratzen duen zelaitxo bat da. Bertan ehortzi omen zituzten Tunel Handin eta ingurutako tuneletan ezbeharez hil ziren langile dohakabeak. Langile haietako bat ez omen zen kristaua, botila ardoa eta moneta bat alboan zituela ehortzi omen zuten gizarajoa.

Zegaman trenbideko langileentzat egin zen hilotzi bakarra ez omen da hau. Beste hilobi batzuk ere ba omen daude trenbidetik gertu, langileak milaka baitziren.

Lurtunela Tunel Handi pasa eta lehenengo tunela da. Tunel honetan, lubizi bat zela eta, zortzi langile hil omen ziren.

Planoak gaizki

Zegaman esan ohi denez, Tunel Handia bi aldeetatik zabaldu omen zuten batera; planoak gaizki gauzatu eta bi bideek elkar bilatuko ez zuten ustea, injenieruak bere burua ito egin omen zuela askotan entzun izan dugu. Herriak hala dio, baina hau ez da egia, ikusi dugunez.

Labean erretako buztina kare bizi nahastuz egiten zuten kare-orrea, tuneletako harriak elkarrekin lotzeko. Labe hauek Oazurtza gainean aspaldi desegin omen ziren.

Langile asko eta asko arrotzak ziren; italiarrak, batez ere, ugari etorri omen ziren.

Italiarren eskusoinua eta pipa

Eskusoinua lehenengo aldiz Zegaman italiar hauen bileretan entzun omen zen;

harrez gerozkoa omen da gure plazetan zorioneko infernuko hauspoaren doinu melankolikoa. Neskatxa askok tabakoa pipan erretzen ere arrotz hauekin ikasi omen zuten. Zenbait emakumek ez omen zuten tenore hartan hartutako "bizioa" uzerik izan. Latsanen eta beste zenbait baserritan emakume zaharrek, 1920an, pipa ilindiz piztu eta, gizonak bezalaxe su ondoan kea zeriela, hankak berotzen omen zituzten.

Seguran trenbiderik nahi ez

Segurako Zurbano, trenbidea egiteko hotsak zabaldu zirenean, zaldi zuriaren gainean joan omen zen Madrilera eta Seguratik trenbidea pasatzea galarazi omen zuten.

Oñatitik markatu omen zuten trenbidea egiteko lurrari, baina bertako jauntxoaren batek asmoa galarazi egin omen zuten.

Bazitekeen Zurbanok Seguratik trena pasatzerik nahi ez izatea eta Madrilera joatea ere bai. Geroago ere, Patrizio Etxeberriari lima fabrika egiten ez zion utzi Zurbanok Seguran eta Idiazabalen egin behar izan zuten tailerra.

Ez Segurako eta ez Oñatiko jauntxoek ez zuten inoiz erabaki trenbidearen proiektua. Trenbidearen trazatua Madrilan egin zen eta trazatua gaurkoa bera zen.

Buska Isusi

Buska Isusiren aitona Italiako Piamonteko semea omen zen. Baina Zumarragan, trenbideko lanetan ziharduela, baserriko neskatxa batekin maitemindu eta bikoteak ezkontzea pentsatu zuten. Zumarragako apaizek ez omen zuten ezkontza onartu, senargaia arrotza zelako. Zegamako



Tunel handiko ardura zeraman injenieruak bere burua ito egin omen zuela askotan entzun izan da. Herriak bala dio, baina hau ez da egia.

parrokian ezkondu omen zen bikotea eta Txanborenen (trenbide alboko etxe batean) kantina ipini eta horrela bizitzen hasi omen ziren.

Trenbidea bukatzean, Zumarragako ardangela ipini zuten. Santa Kruz apaiza, bere mutilekin, sarri sartzen omen zen bertan.

Buska abizeneko italiar honek ezkerreko belarrarian belarritako handi bat omen zeraman.

Zegamatik Egiptora

Hemengo trenbideko lanak bukatu zirenean, langileak Suezko kanala egitera eramane omen zituzten. Egipton lan hau hasi berria zen.

Trenbideko lanak egiten ari zirenetan, langile asko ezkontuta omen zeuden. 50 bat haur jaio ziren lan denek iraun zuten denboran. Sendi hauek bizitzeko Oazurtzan etxeak egin ziren. Gaur ere, oraindik, han daude etxeak hutsik, urteetan artzainen bizitoki izan badira ere.

Lehenengo trena ikustera

Zegaman trena lehenengo aldiz pasa zenean, jende asko bildu omen zen Txararorta inguruan; trena nolakoa zen ikusi nahi nonbait denek.

Iturburuko aitona trena ikustean ondoeza egin eta lurrera erori omen zen, trena ezin zitekeela parte onakoa izan eta.

Zegamako parroko berrogei urtean egon zen Don Andresen aitak mandoetan eramaten omen zuten urrea langileei jornalak ordaintzeko. Trenbideko gastuak urretan ordaintzeko tratuak egin omen ziren.

Trenbidean herriko jendeak ere lana egiten omen zuten. Hauetako bat Joan Muño omen zen. Gizon hau aparta zela diote. Bi listerori ematen omen zien izena, hilean bi jornal kobratuz.

Listeroa kapataza izaten zen; langile denak bertan zeuden jakiteko hauen zerrenda irakurtzen zuten.

Igor Rodriguez beasaindarra eta Adei Cuesta ordiziarra

Energia berriztagarrien bidetik Italiara

Jadanik badira urte batzuk, Lanbide Heziketa zikloetan Lantegitako Prestakuntza edo ziklo amaierako praktikak atzerrian egiteko aukera martxan jarri zela, Leonardo Da Vinci proiektua bitarteko. "Esperientzia aberasgarria benetan" ziurtatzen dute probatzeko aukera izan dutenek. Aurtengo urtea ere gutxiago ez, eta Tolosaldea GLHI-ko beste hamabost ikaslek aberasteko aukera izango dute Finlandia, Polonia, Frantzia, Ingalaterra edo Italia bezalako herrialdetan.

Hauen artean Beasaingo Igor Rodriguez eta Ordiziarro Adei Cuesta goierritarrek izango ditugu Italiako 'Valerio Monti' enpresan, eta bertan energia berriztagarriez baliaturiko berokuntza eta aire girotuko instalakuntzen mantentze lanak burutu ahal izango dituzte. Baina hala ere jomuga honetara iristeko, gai hauek aztertzen dituen goi-mailako 'Eraikin eta prozesu-instalazioen mantenimendua eta jartzea' heziketa zikloa gainditu behar izan dute.

Beraien ibilbideaz galdetzean, zera erantzun digute: "gu, beste lagun ba-



Argazkian, Donostiako Kursaal-era egindako bisita batean. Igor Rodriguez, ezkerretik hasita, laugarrena da eta Adei Cuesta, eskuinetik hasita, bigarrena.

tzen aholkuz mantenimenduko ikasketak burutzera etorri ginen, momentu hartan mantenimendu industrial zelakoan, baina Tolosaldea GLHI-ko ziklo honek aukera zabalagoa eskain-

tzen digu; mantenimendu industrialaz gain eraikinen mantenimendua edo hobeto ulertzearen, berokuntza eta aire girotuko instalakuntzen mantenimenduarena. Gure kasuan bide hau

gehiago gustatu eta hortik jarraitzea erabaki dugu, edo aproba behintzat hortik egingo da, nahiz eta mantenimendu industrialaren atak ere erabat ez itxi. Ikusiko dugu! Gainera, ziklo honetan beste ziklo industrialetan bezala, kolokazioa %100 da. Eta hori ez da dena! Energia berriztagarrien inguruko Heziketa ziklo hau ez da leku askotan eskeintzen eta euskeraz ikastetxe honetan bakarrik, munduan leku bakarra da!", erdi-algara batez nahasten dutelarik.

Ekainaren 9ra arte

Martxoaren 18 abiatu ziren Igor Rodriguez beasaindarra eta Adei Cuesta ordiziarra Italia aldera. Ekainaren 9ra arte egongo dira bertan. Valerio Monti eta Fom Industrie enpresetara joan dira. Cervia eskualdean daude hain zuzen ere bi enpresa hauek. 5-6 ikasle apartamentu batean egongo dira, agentzia baten gidaritzapean. Hori bai, lehenengo egunetan astea batean edo bitan, italiera ikasteko ikastaro iraunkorra jasoko dute.


Egurrezko lehioak, kontraleihoak, atak eta eskailerak neurria.



JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ

Tfnoa.: 943 67 36 11 Faxa: 943 67 36 55
Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa 20491 LEABURU



Arraiak parrilan

© 943 65 21 76

ABALTZISKETA

ZALBIDE

TOLARE
SAGARDOTEGIA



ETXEBIZITZAK

salgai

Zaldibian pisu ederra salgai. 665731067.

Legazpin, pisua salgai. Toki lasaia, bista ederrak, jantzi berri berria, 90 m². 635755118.

errentan hartu

Goierri, pisu bila dabil senar-emazte bikotea. Presazkoa da. 20:00etatik aurrera deitu. 697717189.

elkarbanatzeko

Beasainen, alokairuko pisua osatzeko, pisulagun arduratsu bila nabil. 699757010.

errentan eman

Miami Playa (Tarragona), 4-6 pertsonentzat apartamendu ondo hornitua alokatzen da. Uztailaren 22tik, abuztuaren 19ra, asteetan edo hamabostaldietan. Hondartzatik gertu eta pizsina eta parking pribatua. 656711747, arratsaldeko 7etatik aurrera. **Beasain erdigunean**, etxe nahiko berria alokatzen da. 2 logela, bainugela, sukaldea, egongela eta balkoia. Dena hornitua. Igogailuarekin. 619456317.

GARAJEAK

salgai

Ormaiztegin, garajea salgai. 21 m². 676987135 - 943887244.

errentan eman

Beasainen, lgartza auzoan, 35 m²ko garaje bikoitz itxia alokatzen da. 600329197.

LOKALAK

salgai

Zegaman, 126 m²-ko etxebeha alokatzen da biltegi bezala erabiltzeko aproposa. 616411142

Lazkaoko erdigunean, 32m²-ko baja salgai, berria. 943883410.

LURSAILA

erosi

Goierri lursaila erosiko nuke, herritik gertu. 616698236.

IBILGAILUAK

erosi

Erabilitako furgoneta erosi nuke. 676929453.

salgai

Volvo V70 D5, autoa salgai.

2002 urtekoa, 167 zaldi. 639179821.

Nissan Almera 1.4 LX, egoera onean, 87 zaldi, SS-BD, prezio ekonomikoa. Gauean deitu: 943028388.

Volvo 240 GL Polar (familia-rra) salgai. Karrozeria eta motor oso ongi. Merke. 677510710.

Honda Civic 1600 vtec salgai. 110 zaldi. Gorria. 2003 urtekoa. 30.000 km. 11.000 euro. 943180374.

Peugeot 307 xs 1.6. salgai. 110 zaldi, gris metalizatu. 2004. urtekoa. 35.000 km. 11.000 euro. 660024835.

Opel Vectra sport turbo diesel, dti, salgai. 100 zaldi, 5 atekoa. 2000. urtekoa. 120.000 km. 7.200 euro. Negoziagariari. icamacho@indar.net

Opel Vectra familiarra salgai. Egoera onean. 665722354.

Volkswagen Golf salgai. 2001. urtekoa. 60.000 km. Oso egoera onean. Prezio interesgarria. 606061165

Fiat Ducato autokarabana salgai. Prezio atsegina. 686246292.

Ford Fiesta 1.1. autoa salgai, ez erabiltzeagatik. Merke eta egoera onean. 943884535 - 636620182.

ANIMALIAK

salgai

2 zaldi eta 3 behor bere umeekin saltzen dira. 662279939. 20:00etatik 22:00etara deitu.

Hezitako zaldi kapatua eta pottoka pinttoa salgai. 660966609.

York Shire arrazako txakurkumea salgai, 2 hilabetekoa, txertoarekin eta parasito gabetua. Ohetxoa eta arnesa opari. 651322203.

Border Collie arrazako txakurkumeak salgai. Prezio interesgarria. 619082553. 20:00etatik aurrera deitu.

opari

Setter ingles arrazako 2 txakur opari. 667593955.

Katu mantsoak oparitzen dira. 678924478.

Bi ardi txakur opari. 6 hila-bete eta 3 hilabetekoa. 943885102.




KRISTALDEGIA

ERAKUSKETA:
Ezkiaga Pasealekua z/g
☎ 943 88 88 24

BILTEGIA:
Salbatore Industrialdea
☎ 943 88 60 70

BEASAIN



kudeaketa

fiskala

kontablea

merkatala

laborala

Tel 943 88 44 00

Faxa 943 80 51 27

www.biokzerbitzuak.com

Ordizia Goierri, 12



ANZIZAR, S. A.



Autoen salmenta

Mekanika eta

elektrizitatea



Beasain-Zumarraga, 46 Km.a **BEASAIN**

www.anzizar.com ☎ 943 88 17 00 Faxa.: 943 88 48

PSIKOLOGI KLINIKOA



Jose Ramon Pato Prieto

Psikologian lizentziatua

Elkargokide zenbakia: E-2644

RPS: 420/01

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041

JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak

Olagi

Urte guztian zabalik

Eguneroko menua

Karta

Sagardotegiko mea



☎ 943 88 77 26 **ALTZAGA**

BESTELAKOAK

salgai

Intxaurrezko armairua, bitri-na, mahaia eta bi banku salgai. Antikuario armairua ere bai. Modu onean. 657797754.

Baxujole bila dabil Beasaingo musika talde bat. Esperientzia badu hobeto. Jotzeko gogoa baduzu deitu, konpromisorik gabe. 609214919. Aitor.

Piggini c-220 akordeoi botoi-duna salgai. 943025908.

Negutegi edo inbernadoreen egiturak salgai, 2 eta 3 tunele-takoenak, Ormaiztegin. 943883157.

Solariuma salgai. Egoera ezin hobean. 200 euro. 626503990.

Haur silla salgai, Quinny markakoa. Hiru gurpilduna, bere zaku eta guzti. 120 euro. 685722403.

2 sofa, plaza bakarrekokoak, salgai. Bat, relax motakoa da. Berri-berriak. Modu onean. 943085224. 13:00etatik 16:00etara edo 20:30etik aurrera deitu.

Logela salgai: 1,35eko ohea, somierra, 1,90ko armarioa, 2 mesanotxe, 4 kaxoi eta ispiludun tokadorea, eta aulkia. Oso egoera onean. Prezioa, 60.000 pezetan. 20:00etatik 22:00etara deitu. 2 kortina eta lanpara bat opari. 636370101.

Txirrindu estatikoa salgai, estreinatu gabea, 50 euro. 615726481.

Belarrari buelta emateko makina salgai, traktore txiki-kientzat. Oso gutxi erabilia. 627824757.

Baxua salgai, Brich warlock, NJ seriekoa. Beltza. 2 pastilla aktibo. 675008892. Bittor.

Autoko bozgorailuak, 250 w-koa, eta Panasonic irrati kasetak, karatularekin eta mandoarekin, salgai. Oso gutxi erabilia. 100 euro. 687374559.

Sutarako egurra salgai. 2 metrotan moztuta. 943880905. 20:00etatik aurrera deitu.

Umeentzako trona, Quinny silla eta Bebe confort silla salgai. Prezio negoziagarria. 943884028. Arantxa.

LANA

eskaerak

16-20 urte arteko gaztea behar da, Beasaingo garaje batean lanean ikasteko. 943 887 252.

Sukalde laguntzailea behar da, astelehenetik larunbatera, eguerdiz lan egiteko, eguneko menuetarako. 677500352 (17:00etatik aurrera deitu).

Zerbitzari esperientziaduna behar da Ordizian. 687609093.

Zerbitzaria behar da Beasaingo taberna batean. 629869668.

Zerbitzaria behar da. 665726846.

Beasainen neska bat behar da egun osoz etxeko lanak egin eta 7 urteko haurra zaintzeko. 943881302.

Emakumea behar da, goizetan, haur bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. 692715029.

Enpresaritzak gaiak emateko irakaslea behar da. Bidali kurrikuluma Ordiziako 61. posta kutxara.

eskaintzak

Administrari laguntzailea eskaintzen da, dendetan edo arratsaldean lan egiteko. 615731348.

Gizonezkoa soldatzaile lan bila dabil. 627707961.

Ostalaritzan lan egingo nuke. 627707691.

Sukaldari laguntzaile bezala lan egingo nuke. Esperientziaduna. 627707691.

Emakumea eskaintzen da, autoarekin, lan ez kalifikatueta-rako. (Garbiketarako egiteko, adineko pertsonak zaintzeko...). 678781985.

Asteburuetan informatika klaseak emateko neska eskaintzen da. 2 urteko esperientziarekin. 679556586. Gaez deitu.

Neska prest dago gauetan adineko pertsonak zaintzeko. Esperientziaduna. 616889923.

Emakumea prest dago garbiketarako lanak egin eta umeak zaintzeko. Autoarekin. 626695216.

Emakumea prest dago gaez adineko zaindu edo etxeko lanak egiteko. 617769791.

Emakumea prest dago adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko, edo garbiketarako lanak egiteko. 647896460.

Emakumea prest dago adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko, edo garbiketarako lanak egiteko. 679890464.

Emakumea prest dago adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko, edo garbiketarako lanak egiteko. 943087145.

Emakumea prest dago garbiketarako lanak egin eta haurrak zaintzeko. 676593155.

Neska euskalduna eskaintzen da administrari lanak egiteko, harreragintzan, telefonoa hartzen... 625702851.

Emakumea prest dago, tabernak garbitzen, sagardotegietan, adineko pertsonak zaintzen edo etxeak garbitzen lan egiteko, arratsaldean. 630254643.

Emakume euskalduna prest dago orduka lan egiteko. 943084046.

Arkupe

ETXERAKO OIHAL ETA OSAGIAK

J. M. Barandiaran plaza - Tel.: 943 88 00 84 - ORDIZIA



izal

☎ 943 187 049
☎ 943 187 045

Ondramuño baserria


IMAZ eta CONTRERAS

IDIAZABAL

PINTURA eta PAPERGINTZA



**Jauregi
TOLDOAK**



INSTALATZAILE OFIZIALA



IAZA

LLAZAPLUS ZENTROA

T 943 880 243 Antzizar auzoa z/g - Beasain



aulia
TOLARE
SAGARDOTEGIA

☎ 943 80 60 66

Aulia-enea
LEGORRETA



Gabiriako Arane-txiki baserriko sendia, 1941. urtean

Ander Iurritak utzi digun argazki honetan Oñatibia Garin sendia agertzen da, gurasoak eta 5 seme-alaba.

Ezkerretik eskuinera: Ana Mari Oñatibia, Mariana Garin Agirreurreta (ama, izatez Gabiriako Arane-haundi baserrikoa), Joakin Oñatibia, Joxe Oñatibia, Kontxita Oñatibia, Balentin Oñatibia Agirreurreta (Aita) eta Pakito Oñatibia.

Nazaret zentroa

www.nazaretzentroa.com - Aldakoenea, 36 - B° Egia
20012 DONOSTIA - Tel. 943 326666 - Fax. 943 326384



Irakaskuntza ertain
eta lanbiderakoak
Enseñanzas medias
y profesionales

Batxilergoa

- 1 Giza eta Gizarte Zientziak
- 2 Natura eta Osasun Zientziak

Lanbide Zikloak

Goi Mailako Zikloak

- 1 Administrazioa eta Finantzak
- 2 Informatika
- 3 Marketina
- 4 Nazioarteko Merkataritza
- 5 Idazkaritza

Ziklo Ertainak

- 1 Administrazio-Kudeaketa

**Ikasgaiak euskaraz,
erdaraz eta ingelesez
ematen dira**

JARDUNALDI IREKIAK

Hilabetea	Martxoa		Apirila		Maiatza	
Eguna	24	25	28	29	26	27
Ostirala	●		●		●	
Larunbata		●		●		●
Ordua	18h. - 11h.	18h. - 11h.	18h. - 11h.	18h. - 11h.	18h. - 11h.	18h. - 11h.



kutxa, lankidetzako gizarte ekintza





Goierri Lanbide Eskola
La granja auzoa, z/g
20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 880 062
Faxa: 943 888 351
www.goierrieskola.org
bulegoa@goierrieskola.org

Goierri Lanbide Eskola

2006-07 eskaintza

Zurekin etorkizuna landuz

LANBIDE-HEZIKETA

Goi mailako zikloak:

- Administrazioa eta Finantzak
- Eraikuntza metalikoak
- Proiektu mekanikoen garapena
- Mekanizazio bidezko produkzioa
- Telekomunikazio eta informatika sistemak
- Erregulazio eta kontrol sistema automatikoak
- Industria-ekipoen mantenimendua

Erdi mailako zikloak:

- Mekanizazioa
- Soldadura eta Galdaragintza

Lanbide hastapenak:

- Autoen mekanika, Iturgintza, Txapa eta pintura, Sukaldaritza

Lan praktikak eta lan burtsa: Laneratze tasa %95



Aurre inskripzioak: Ekainaren 1etik 7ra

Ate irekien eguna: Maiatzak 20, goizeko 9etatik 12:30era



suquia

sukaldeak

KALE NAGUSIA, 10

TEL.: 943 882 300 FAXA: 943 881 348

ORDIZIA 20240 GIPUZKOA

e-posta: suquia@jazzfree.com

NAFARROA ETORBIDEA, 16

TEL.: 943 884 375 FAXA: 943 805 250

BEASAIN 20200 GIPUZKOA

Gozatzeko sukaldeak



Gure izatea kalitatea eta zerbitzua